

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hasi dira Sarrigurengo ikastetxe publiko berriko obrak

Haur eta Lehen Hezkuntzako hiru lerro oso hartu ahal izango ditu

Jueves, 29 de enero de 2015

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publiko berri bat eraikitzen hasi da Sarrigurenen, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako hiru lerro oso hartu ahal izango ditu. 2015-2016 ikasturterako amaituta izango diren obren aurrekontua 2.008.603 euro da, BEZa barne.

Ikastetxe berria DD-3 eta DD-4 udal-partzeletan kokatuko da, eta haiek 15. poligonoko 215. eta 216. katastro-partzelekin nahiz 14. poligonoko 15. eta 559. katastro-partzelekin bat datoz. Partzela horiei hezkuntza-erabilera eman zaie.

Egikaritze-proiektuak hiru jarduera-eremu zehazten ditu: A, administrazioko gunea, haur-hezkuntzako espazioak eta gimnasioa hartzen dituen; B, lehen hezkuntzako espazioak hartzen dituen, eta C, jangelaren instalazioekin.

A jarduera-eremuan, honako hauek daude: Haur Hezkuntzako 9 ikasgela, psikomotrizitateko ikasgela, 5 komun ikasgeletatik zuzenean sartzeko aukerarekin, irakasleentzako komuna eta garbiketa-gela; horrez gain, Haur eta Lehen Hezkuntzarako gune bateratu bat: gimnasioa, bi aldagela, gimnasioaren biltegia, irakasleen gela, zuzendaritzako bulegoa, idazkaritza, gurasoen elkarterako gela, atezaintza eta biltegia, bai eta logopeda, fisiologo eta orientatzaileentzako bulegoak ere.

B jarduera-eremuan, Lehen Hezkuntzako guneak 18 ikasgela izango ditu, hizkuntza-gela, bikoizketarako sei ikasgela, erabilera balio anitzerako gela, liburutegia, sei komun, irakasleentzako komuna, musika-gela, informatika-gela eta garbiketa-gela.

Azkenik, C jarduera-eremuak jangela, sukaldea, biltegia eta bi aldagela izango ditu. Eraiki nahi den ikastetxeko ikasleak eskolaratzeko esparruari erreparatuz, eta ikastetxe publikoetako eskola-jangelak arautzeko araudian finkatutakoa betez, ikastetxe berriko jangelak ohiko jangelaren kalifikazioa izango du, eta haren sorrera nahiz antolaketa ez da Foru Komunitateko Administrazioaren eskumena izango.



Ikastetxe berria eraikiko den tokia.